



TOKI ZUZENBIDEAREN EUSKAL BEHATOKIA (2024ko urria)

ARAUGINTZAKO PROIEKTUAK

Diputatuen Kongresua:

- **Lege-proiektua, arau hauek aldatzen dituena: Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina (irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) eta Itsas Nabigazioari buruzko uztailaren 24ko 14/2024 Legea.**

Ganberako Mahaiak, 2024ko irailaren 13an egindako bileran, lege horren onarpena, legegintzako eskumen osoarekin, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Batzordeari agintzeko erabakia hartu du, Erregelamenduaren 148. artikuluari jarraikiz.

121/000034 Lege-proiektua, arau hauek aldatzen dituena: Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina (irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) eta Itsas Nabigazioari buruzko uztailaren 24ko 14/2024 Legea (congreso.es)

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-34-1.PDF#page=1

- **Lege-proiektua, arau hauek aldatzen dituena: Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, langileen ezintasun iraunkorragatik lan-kontratua azkentzearen gain; eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, ezintasun iraunkorraren gain.**

Erreforma honekin desgaitasuna duten pertsonen enplegurako berdintasunerako eskubidea modu eraginkorragoan bermatu nahi da, Espainiako Konstituzioaren 9.2, 14., 35. eta 49. artikuluetan eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean ezarritakoari jarraikiz. Hori izan da Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 49.1 artikulua erreformari ekiteko helburu nagusia da, hots, bi hauek bereiztea: batetik, lan-kontratua azkentzeko kausa langilearen heriotza denean ezarri beharreko araubide juridikoa, eta, bestetik, ezintasun iraunkorreko kasuei ezarri beharreko araubide juridikoa. Aldi berean, ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia



duen pertsonen kontratuaren azkentze automatikoa ezabatzen da, eta enpresak, dagokion erabakia hartzeko, kontuan izan beharko du langilearen borondatea eta lanpostua egokitzeko aukera edo bere lanbide-profilarekin bat datorren eta egoera berriarekin bateragarria den lanpostu hutsik eta erabilgarririk badagoen. Azken batean, aurreko neurriak hartzeak gehiegizko karga dakarrenean bakarrik aktibatu ahal izango du enpresak kaleratze-kausa hori.

121/000033 Lege-proiektua, arau hauek aldatzen dituena: Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, langileen ezintasun iraunkorreatik lan-kontratua azkentzearen gaian; eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, ezintasun iraunkorren gaian (congreso.es)

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-33-1.PDF#page=1

- Lege-proiektua, zeinaren bidez neurri jakin batzuk luzatzen baitira Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazketatik eratorritako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko, eta urgentziatzko neurriak hartzen baitira zerga-, energia- eta gizarte-arloan.

Espainiako Konstituzioaren 86.2 artikuluan xedatutakoa betez, Diputatuen Kongresuak ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretua —horren bidez neurri jakin batzuk luzatzen dira Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazketatik eratorritako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko, eta urgentziatzko neurriak hartzen dira zerga-, energia- eta gizarte-arloan— eztabaidatu eta osorik bozkatu zuen 2024ko uztailaren 23ko bilkuran, eta baliozkotzea eta lege-proiektu gisa izapidetzea erabaki zuen.

121/000032 Lege Proiektua, zeinaren bidez neurri jakin batzuk luzatzen baitira Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazketatik eratorritako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko, eta urgentziatzko neurriak hartzen baitira zerga-, energia- eta gizarte-arloan (ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretutik eratorria) (congreso.es)

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-32-1.PDF#page=1

BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2027 Agenda Digitala (2024ko irailaren 23ko BAO)

Apustu irmo hori Agenda Digital berri baten lankidetzazko diseinuan gauzatzen da, Foru Aldundiko Koordinaziorako eta Estrategia Digitalerako Zuzendaritza Nagusiak sustatuta. Agenda Digital horrek, begirada 2027an jarrita, ekintza-esparru orokor bat eratzen du, eta, bertan, ibilbide-



orria osatu behar duten ildo estrategikoak zehazten dira, Bizkaiko gizartearen digitalizazioan urrats irmoz aurrera egiten jarraitzeko.

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/09/23/I-959_eus.pdf?hash=2f46f863d759db9e4d04ca18765dbcbb

- EMAKUNDE, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Estrategia

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Euskadiren 2030 Estrategia eragile publiko eta sozialei eta herritar orori irekita dagoen proposamena da. Ikuspegi komun bat eraikitzeko lan-oinarri partekatua eskaini nahi du: «Hamarkada honetan, berdintasunaren arloko gizarte aurreratuenen artean aitortutako abangoardia eta erreferentzia izan nahi du Euskadik».

Estrategiak, 2030 urtera begira definituta, bide-orri bat proposatzen du, aipatu ikuspegia betetze aldera dimentsioetan eta ardatz kritikoetan aurrera egiteko. Bide-orri hori denboran zehar neurtu eta ebaluatu daitezkeen aurrerapenetan gauzatuko da.

https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_gubernamental/12_planest_xiileg/eu_def/Berdintasunerako_Estrategia_2030.pdf

- 841/2024 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, apirilaren 4ko 252/2023 Errege Dekretuaren bidez Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatutako Estatuko Administrazioaren eginkizunak aldatzen dituen, trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloan. (2024ko irailaren 10eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/09/10/pdfs/BOE-A-2024-18112.pdf>

- 893/2024 Errege Dekretua, irailaren 10ekoa, familia-etxeko zerbitzuaren arloan segurtasuna eta osasuna babestea arautzen dituen. (2024ko irailaren 11ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/09/11/pdfs/BOE-A-2024-18182.pdf>

- HAC/965/2024 Agindua, irailaren 9koa, honako agindu hauek aldatzen dituena: Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1996ko otsailaren 1eko bi agindu —Estatuaren Administrazio Orokorrak erabili beharreko kontabilitate-agiriak onartzen dituen eta Estatuaren gastua beteazterazteko orduan bete beharreko kontabilitate-eragiketarako jarraibidea onartzen duena—;



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



EHA/2045/2011 Agindua, uztailaren 14koa, Estatuaren Administrazio Institutuzionalerako Kontabilitate Jarraibidea Onartzen duena; eta EHA/3067/2011 Agindua, azaroaren 8koa, Estatuaren Administrazio Orokorrerako Kontabilitate Jarraibidea onartzen duena. (2024ko irailaren 17ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/09/17/pdfs/BOE-A-2024-18530.pdf>

- Honen hutsen zuzenketa: ISM/812/2024 Agindua, uztailaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita ISM/386/2024 Agindua, apirilaren 29koa, Gizarte Segurantzarekin hitzarmen berezia sinatzea arautzen duena, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren berrogeita hamabigarren xedapen gehigarrian araututako —eta agindu hau indarrean jarri aurretik egindako— prestakuntza-praktikaldien eta kanpoko praktika akademikoen ondoriozko kotizazioa zenbatzeko. (2024ko irailaren 17ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/09/17/pdfs/BOE-A-2024-18531.pdf>

- 6053-2024 konstituzio-kontrakotasuneko arazoa, Katalunian normalizazio instituzional, politiko eta sozialerako amnistiari buruzko ekainaren 10eko 1/2024 Lege Organikoaren 1. artikularekin lotzen dena, horrek Espainiako Konstituzioaren 9.3, 14. eta, subsidiarioki, 117.3 artikulua urra ditzakeelakoan. (2024ko irailaren 19ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/09/19/pdfs/BOE-A-2024-18724.pdf>

- TED/1032/2024 Agindua, irailaren 20koa, tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinak kudeatzeko plataforma elektronikoa eta hondakin-bilketak esleitzeko bulegoa garatzen dituen. (2024ko irailaren 27ko BOE)

Arau honen helburua da Tresna Elektriko eta Elektronikoaren Hondakinei (TEEH) buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuak sortutako bi tresnak garatzea: tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinak kudeatzeko plataforma elektronikoa, eta hondakin horien bilketak esleitzeko bulegoa.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/09/27/pdfs/BOE-A-2024-19391.pdf>



Artikuluak / Doktrina-azterlanak

- **La exclusión de la caducidad por razones de interés general en los procedimientos iniciados a solicitud del interesado y en los procedimientos de revisión de oficio de disposiciones y actos nulos de pleno derecho. Sentencia de Tribunal Supremo 466/2024**, Miryam Quintanilla Navarro (Acento Local blogean argitaratua 2024ko irailaren 13an).

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/la-exclusion-de-la-caducidad-por-razones-de-interes-general-en-los-procedimientos-iniciados-a-solicitud-del-interesado-y-en-los-procedimientos-de-revision-de-oficio-de-disposiciones-y-actos-nulos-de-p/>

- **La hacienda local en cifras. Análisis y reflexiones**. Núria Bosch Roca; Maite Vilalta Ferrer (Acento Local blogean argitaratua 2024ko irailaren 18an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/la-hacienda-local-en-cifras-analisis-y-reflexiones/>

- **El cómputo del plazo para la reclamación de intereses en los supuestos de resolución de convenios urbanísticos. Sentencia del Tribunal Supremo 1194/2024**, Noelia Betetos Agrelo (Acento Local blogean argitaratua 2024ko irailaren 27an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/el-computo-del-plazo-para-la-reclamacion-de-intereses-en-los-supuestos-de-resolucion-de-convenios-urbanisticos-sentencia-del-tribunal-supremo-1194-2024/>

- **Cómo usar la Inteligencia Artificial para cumplir con los ODS y la Agenda 2030 en 3 claves**, Concepción Campos Acuña (egilearen blogean argitaratua 2024ko irailaren 5ean)

<http://concepcioncampos.org/como-usar-la-inteligencia-artificial-para-cumplir-con-los-ods-y-la-agenda-2030-en-3-claves/>

- **Todo lo que tienes que saber sobre los «Conflictos de Intereses»**, Concepción Campos Acuña (egilearen blogean argitaratua 2024ko uztailaren 9an)

<http://concepcioncampos.org/todo-lo-que-debes-saber-sobre-los-conflictos-de-intereses/>

- **El TJUE reitera que un Juez nacional no está obligado a cumplir una resolución de su Tribunal Constitucional, si ésta es contraria a la interpretación dada por el TJUE del derecho de la Unión Europea**, Diego Gómez Fernández (egilearen *Es de Justicia* blogean argitaratua 2024ko irailaren 27an).

<https://www.derechoadministrativoyurbanismo.es/post/el-tjue-reitera-que-un-juez-nacional-no-est%C3%A1-obligado-a-cumplir-una-resoluci%C3%B3n-de-su-tribunal-consti>



- *El Tribunal Constitucional reitera que cuando el funcionario público no hace uso de la facultad del art. 23.3 LJCA y es defendido por abogado, la condena en costas debe incluir los honorarios de éste*, Diego Gómez Fernández (egilearen *Es de Justicia* blogean argitaratua 2024ko irailaren 13an)

<https://www.derechoadministrativoyurbanismo.es/post/el-tribunal-constitucional-reitera-que-cuando-el-funcionario-p%C3%BAblico-no-hace-uso-de-la-facultad-del>

- , Carmen García Perez (*Acal* blogean argitaratua 2024ko urriaren 1ean)

<https://www.acalsl.com/blog/2024/10/el-principio-in-dubio-pro-actio>

- *La declaración de lesividad en la Administración pública*, Carmen García Perez (*Acal* blogean argitaratua 2024ko urriaren 1ean)

<https://www.acalsl.com/blog/2024/10/declaracion-de-lesividad>

- *Plan General de Ordenación Urbana: qué es y qué debe contener*, Encarna González (*Acal* blogean argitaratua 2024ko irailaren 30ean)

<https://www.acalsl.com/blog/2024/09/plan-general-de-ordenacion-urbana>

Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruz

- *Sobre la polémica consideración de los servicios de ingeniería, arquitectura y urbanismo como servicios de carácter intelectual. A propósito de la STS de 18 de julio de 2024 (rec. Núm. 4379/2021)*, Juan Antonio Carrillo Donaire; Jesús Tarancón Babío (*ObCP* blogean argitaratua 2024ko irailaren 16an)

<https://www.obcp.es/opiniones/sobre-la-polemica-consideracion-de-los-servicios-de-ingenieria-arquitectura-y-urbanismo>

- *La colusión en la contratación pública*, Macarena Geli Ramiro (*ObCP* blogean argitaratua 2024ko irailaren 23an)

<https://www.obcp.es/opiniones/la-colusion-en-la-contratacion-publica>



- **La calidad del dato en la contratación pública**, Daniel Arosa Otero (*ObCP* blogean argitaratua 2024ko irailaren 30ean)

<https://www.obcp.es/opiniones/la-calidad-del-dato-en-la-contratacion-publica>

- **Enriquecimiento injusto ante las consecuencias de la contratación irregular**, Andrés Manuel González Sanfiel (*Revista de Administración Pública* aldizkarian argitaratua, 222. zk.)

<https://www.cepc.gob.es/sites/default/files/2023-12/40318rap22204gonzalez-sanfiel.pdf>

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusia

- **539/2024 Ebazpena, 2022ko apirilaren 26koa.**

Zerbitzu-kontratuko adjudikazioaren aurkako errekurtsoa, SPKL. Baiespena. Adjudikazioa balio-gabetzea. Obra-zuzendaritzari ingurumen-laguntza teknikoa emateko kontratuaren adjudikazioduna bera da laguntza teknikoa kontratatzen den proiektuaren egilea. Proiektua ezagutu behar da proposamenak egiteko. SPKLren 70. artikulua araubidea da aplikagarria eta kontratazio-organoak ez du neuririk hartu. Ez dira bete SPKLren 138. artikuluan jasotako informazio-betebeharrak, proiekturako sarbiderik ez delako eman. Desberdintasunak lizitatzailen artean. Ez da arazoitu balio-iritziaren mendeko adjudikazio-irizpideen balorazioa.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200364-2024%20\(res%20539\)%2026-04-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200364-2024%20(res%20539)%2026-04-2024.pdf)

- **738/2024 Ebazpena, 2024ko ekainaren 6koa.**

Zerbitzu-kontratuko adjudikazioaren aurkako errekurtsoa, SPKL. Baiespena. Balorazio-txosten berria, irizpide objektiboen gutun-azala ireki ondoren. Proposamenen sekretua urratu da. Izan ere, txosten berrian ez dira akats matematiko soilak antzeman, lizitatzailen puntuazioa ere alderantzikatu egin da, hasierako adjudikazioduna bigarren sailkatu bihurtuz.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200548-2024%20ib%2030-2024%20\(res%20738\)%2006-06-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200548-2024%20ib%2030-2024%20(res%20738)%2006-06-2024.pdf)



- 740/2024 Ebazpena, 2024ko ekainaren 6koa.

Zerbitzu-kontratuko adjudikazioaren aurkako errekurtsua. SPKL. Ezespena. Indarreko hitzarmeneko soldata-taulak bete ez izana oinarri hartuta aurkaratzen da. Ezetsi egin da, baldintza-agiriak kontratuaren legea direlako eta lizitatuzaileak zein kontratazio-organoa lotesten dituztelako. Hor-taz, lizitatuzaileek eskaintzak aurkezteko epea amaitzean indarrean dagoen hitzarmeneko sol-data-taulen arabera egin behar dute eskaintza, eta kontratazio-organoak hitzarmen beraren ara-bera baloratu behar ditu aurkeztutako eskaintzak. Hitzarmen berria onartzearen ondorioz gutxi-egitasunen bat sortuko balitz, gutxi-egitasun hori kontratua egikaritzean agertutako kontu bat izango litzateke, eta, ondorioz, kontu hori dagokion moduan ebatzi beharko da, baina ez da kon-tuan hartuko kontratua adjudikatzeko orduan.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200557-2024%20\(res%20740\)%2006-06-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200557-2024%20(res%20740)%2006-06-2024.pdf)

- 1114/2024 Ebazpena, 2024ko irailaren 19koa.

Zerbitzu-kontratuko lizitazio-iragarkiaren eta baldintza-agirien aurkako errekurtsuak, SPKL. Ezespena. Baldintza-agiri horiek esparru-akordio batean oinarritutako kontratu-objektuak barne hartzen dituzte —kontratu horiek eman gabe geratu ziren—. Errekurtsuak jartzearen arrazoia zerbitzuen prezioaren igoera da. Ez dira onartzen 805-806-807 eta 808/2024 errekurtsuak, erre-kurtsogileen legitimaziorik ezagatik, 55.b) artikuluari jarraikiz. Izan ere, ez dute eskaintzarik aur-keztu, eta ez dute azaldu salatutako prezio-desberdintasunak zertan eragotzi dien eskaintza aur-keztea. 804 errekurtsua jarri duenari baino ez zaio aitortu legitimazioa, eskaintza aurkeztu due-lako. Berdintasun-printzipioa urratzen dela salatzen da, SPKLren 39. artikuluan oinarrituta; arti-kulu horrek urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. artikulua lehenengo apartatuaren a) letrara igortzen du. Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua urratzen dela salatzen da. Arrazoi hau eman da: zerbitzu bereberri —indarreko esparru-akordioaren arabera emandakoak eta errekur-tsoa jarri zaienak— ordainsari desberdina eman zaie. Arrazoia ezetsi egin behar da, horren ingu-ruko frogarik ez dagoelako.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recursos%200804,0805,0806,0807%20y%200808-2024%20mu%2048,49,50,51%20y%2052-2024%20\(res%201114\)%2019-09-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recursos%200804,0805,0806,0807%20y%200808-2024%20mu%2048,49,50,51%20y%2052-2024%20(res%201114)%2019-09-2024.pdf)



- 1116/2024 Ebazpena, 2024ko irailaren 19koa.

Zerbitzu-kontratutik baztertua izatearen aurkako errekurtsua, SPKL. Ezespena. Errekurtsogileak alegatu du ez zaiola formalki jakinarazi baztertua izan dela, baina jakin duela zein aktatan erabaki den lehiaketaren adjudikazioa eta bera baztertua izatea, nahiz eta horretarako ebazpen arrazoiturik eman ez den. Auzi honen muinari dagokionez, ebatzi behar dena da errekurtsogileak eskaintza aurkeztu ez izana berari egotz dakiokkeen edo ez. Ez da ezein gorabehera teknikorik egiaztatu. Epea agortzea, marjinarik gabe.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200860-2024%20\(res%201116\)%2019-09-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200860-2024%20(res%201116)%2019-09-2024.pdf)

- 1117/2024 Ebazpena, 2024ko irailaren 19koa.

Horniduran oinarritutako kontratuaren adjudikazioaren aurkako errekurtsua, SPKL. Baiespena. Errekurtsogileak esleipen-ebazpenaren aurka egin du, baldintzak betetzen ez dituen enpresa bat adjudikaziodun izan dela uste baitu. Auzitegiaren doktrina, eskaintza teknikoaren alderdiak argitzeari eta zuzentzeari buruz. Kontratazio-mahaiak akatsak zuzentzeko eskatu zion adjudikaziodunari, eta eskatutako 52 baldintza funtzionaletatik 39 justifikatzeko aukera eman zion. Izan ere, baldintza-agirietan argi eta garbi zehazten zen eskaintzan justifikatu behar zirela, dokumentazio ofiziala eskatzen baita, eta hala egin zuen, gainera, jatorrizko eskaintzako 12 betekizunetan.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200877-2024%20\(res%201117\)%2019-09-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200877-2024%20(res%201117)%2019-09-2024.pdf)

- 1118/2024 Ebazpena, 2024ko irailaren 19koa.

Zerbitzu-kontratuaren adjudikazioaren aurkako erreklamazioa (3/2020 ELD). Ezespena. Erreklamazioa hainbat arrazoirengatik egin da: gutun-azalak kutsatu izana, eskaintza teknikoaren elementuak balio-iritzien bidez baloratzeko arrazoibiderik eman ez izana, eta memoria teknikoaren luzera-muga gainditu izana. Ezespena: ezin izan da egiaztatu 2. gutun-azalean 3. gutun-azaleko elementuak sartu direnik. Balorazio-txostena behar bezala arrazoituta dago, nahiz eta errekurtsogilea bat ez etorri irizpide teknikoarekin, zeinak, bestalde, kontratazio-organoaren diskrezionalitate teknikoaren bermea baitu. Memoriaren luzerak erabat errespetatzen ditu preskripzio teknikoaren agiriak ezarritako mugak.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200883-2024%20\(res%201118\)%2019-09-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200883-2024%20(res%201118)%2019-09-2024.pdf)



- 1120/2024 Ebazpena, 2024ko irailaren 19koa.

Zerbitzu-kontratuaren adjudikazioaren aurkako erreklamazioa (3/2020 ELD). Baiespen partziala. Erreklamatazailearen uziaren oinarria zera da, adjudikaziodunaren eskaintzak ez duela betetzen baldintza teknikoaren eta partikularren agirian eskatzen den betekizuna, eta adjudikaziodunaren eskaintza oker baloratu dela prezioekin zerikusirik ez duten irizpideetan, zeinak automatikoki edo formulen bidez ebalua baitaitezke. Egia da adjudikaziodunak SPKLren 150.2 artikulua izapidean aurkeztutako dokumentazioa ez datorrela bat baldintza-agiriekin eskatzen duenarekin, «sektoreko patronal baten bidez kode etikora atxiki izana»ri dagokionez. Beraz, aurkaratzeko arrazoi hori onargarria da. Hala ere, ez da bidezkoa adjudikazioduna arrazoi horregatik baztertzea; aitzitik, adjudikazio-ebazpena baliogabetu beharko litzateke, entitate kontratatzaileak adjudikaziodunari eska diezaion betekizun hori egiaztatzen duen dokumentazioa zuzentzeko. Eskaintza baloratzeari dagokionez, Auzitegiak uste du errekurtsogilearen alegazioek ez dutela indargabetzen gutxieneko ezaugarri teknikoaren txosten teknikoan eta balorazio automatikoko irizpideen txostenean egindako balorazioa.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200895-2024%20\(res%201120\)%2019-09-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200895-2024%20(res%201120)%2019-09-2024.pdf)

- 1109/2024 Ebazpena, 2024ko irailaren 19koa.

Zerbitzu-kontratuko adjudikazioaren aurkako errekurtsua, SPKL. Baiespena. Akatsa dokumentazioa aurkeztean: hiru irizpide automatikoren balorazioa falta da. Baldintza-agirietan ez dago jasota balorazio subjektiboko irizpiderik. Dokumentazioa okerreko gutun-azalean aurkezteak ez dio eragiten lizitatzaileren arteko berdintasunari. Ez dagokio eskaintza osatzea. Errekurtsua baiesten da, kontratazio-organoak bi gutun-azaletan jasotako dokumentazioa balora dezan.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200901-2024%20val%20191-2024%20\(res%201109\)%2019-09-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200901-2024%20val%20191-2024%20(res%201109)%2019-09-2024.pdf)



- 1111/2024 Ebazpena, 2024ko irailaren 19koa.

Zerbitzu-kontratutik baztertua izatearen aurkako errekurtoa, SPKL. Ezespena. Auzigai nagusia: errekurtsogilea baztertzeko erabakia zuzenbidearen arabera den. Horretarako, kontuan izan behar dugu baztertua izateko arrazoiak: jarduleak ez bete izana kaudimen ekonomiko eta finantzarioari buruz egin zitzaion zuzenketa-errekerimendua, SPKLren 15.2 artikulua arabera: Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatu ez izana. Gordailututako urteko kontuak aurkeztu behar dira, horietatik ondorioztatzen delako urteko negozio-zifra administrazio-klausula partikularren agiriaren eskatutakoa dela.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200987-2024%20\(res%201111\)%2019-09-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200987-2024%20(res%201111)%2019-09-2024.pdf)

- 1112/2024 Ebazpena, 2024ko irailaren 19koa.

Zerbitzu-kontratutik baztertua izatearen aurkako erreklamazioa (3/2020 ELD). SEEP. Baiespena. Errekurtsogileak hitzez hitz betetzen ditu eskatzen diren gutxieneko kaudimen tekniko edo profesionaleko irizpideak, nahiz eta aurkeztutako informazioak ez dituen azaltzen irizpide automatiko gisa konfiguratutako hobekuntzak. Baldintza-agiriaren ulergaitasunak ezin dio kalterik egin errekurtsogileari, eta lehiaren alde ebatzi behar da.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%201009-2024%20\(res%201112\)%2019-09-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%201009-2024%20(res%201112)%2019-09-2024.pdf)

- 1113/2024 Ebazpena, 2024ko irailaren 19koa.

Obra-kontratuaren adjudikazioaren aurkako erreklamazioa (3/2020 ELD). SEEP. Ezespena. Errekurtsogileak arau-hauste teknikoak salatu ditu adjudikaziodunaren eskaintzan: Teknikarien txostenen diskrezionalitate teknikoak vs. jardulearen kontsiderazio alderdikoak. Baldintza-agiriak oker interpretatu dira salatutako ustezko arau-hauste formalei dagokienez (kaxak ainguratu eta bete ondoren, eta zabalgunek berriak prekarga egin ondoren finkatzeko beharrezkoa den gutxieneko denbora, Estatuko Portuen Txostenean jasotakoa; AKPAren 5. arau espezifikoan jasotako ingurumen-baldintzatzaileak; eta AKPAren eraikuntza-memoriarako ezarritako orrialde-muga eta formatu mota ez dira bete). Administrazioarekin kontratatutako gaitasunik eza salatzen du: Espainian jarduten ez duen eta Espainian ez dagoen atzerriko enpresa bati berdintasun-plana eskatzea; salbuespen-adierazpenaren atzeraeraginezko izaera, SPKLren 71.1.d) artikuluan ezarritako kontratatutako debekuaren ondorioetarako, eskaintza aurkezteko unean enplegatuen gutxienez ehuneko 2 desgaitasuna duten langileak izateko beharri dagokienez.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%201010-2024%20\(res%201113\)%2019-09-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%201010-2024%20(res%201113)%2019-09-2024.pdf)



- 1125/2024 Ebazpena, 2024ko irailaren 19koa.

Zerbitzu-kontratuko baldintza-agirien aurkako errekurtsua, SPKL. Ezespena. Errekurtsua aurkeztu duen lanbide-elkargoaren zilegitasuna, ordezkaten duen kolektiboaren interes profesionalei eragiten dien klausula aurkaratzeko. Funtsari dagokionez, ezetsi egin da, errekurtsua jarri zaien baldintza-agirietan ez baita hauteman lehia justifikatu gabe murrizten denik titulazio jakin baten alde, kasu honetan, industria-ingeniaritzaren alde.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%201059-2024%20val%20228-2024%20\(res%201125\)%2019-09-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%201059-2024%20val%20228-2024%20(res%201125)%2019-09-2024.pdf)

- 1127/2024 Ebazpena, 2024ko irailaren 19koa.

Zerbitzu-kontratuko iragarkiaren eta baldintza-agirien aurkako errekurtsua, SPKL. SEEP. Ezespena. Baldintza-agirietan jasotako dokumentazioa lizitatzailleen eskura egon da une oro Plataforman, eta errekurtsogileak kontratazioaren baldintzak ezagutuko zituzkeen, dokumentazio hori behar bezala deskargatu eta aztertu izan balu. CPV kodeetan eta baldintza-agiriek ezarritako kontratuaren objektuan babesten da zurezko euskarriak fabrikatzeko eta instalatzeko prestazioa babesten dute; beraz, produktu- eta kalitate-ziurtagiriak eska daitezke. Baliabide materialen atxikipena zuzenbidearen arabera da, kontratuaren objektuari egokitzen zaiolako, justifikatuta dagoelako eta proportzionala delako.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%201160-2024%20clm%2083-2024%20\(res%201127\)%2019-09-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%201160-2024%20clm%2083-2024%20(res%201127)%2019-09-2024.pdf)

Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak

- 158/2024 Ebazpena, 2024ko uztailaren 10ekoa, Kanarietako Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Administrazio Auzitegiarena.

Zerbitzu-kontratuko baldintza-agirien aurkako errekurtsua, SPKL. Ezespena. Entitate errekurtsogileak baldintza-agirien aurka egin du subrogazioari dagokionez, ulertzen baitu subrogatu behar diren langile guztiak ez direla sartu subrogatu behar diren langileen artean, eta, horren ondorioz, ez direla behar bezala zenbatu kontratuaren soldata-kostuak, eta, beraz, ez dela behar bezala finkatu lizitazioaren oinarritzko aurrekontua. Informazioa emateko betebeharraren edukia, SPKLren 130. artikulua araberakoa da. Soldata-kostuak lizitatzen den kontratuaren benetako beharren arabera kalkulatzeko. Ezetsi egiten da eta ez dira onartzen gainerako arrazoiak, legitimazio aktiborik ez dagoelako.

https://www.gobiernodecanarias.org/msgobcan/export/sites/hacienda/tacp/TACP_2024/RES-158-2024-REMC-057-2024.pdf



Europako Kontuen Auzitegia

- 13/2024 Txosten Berezia: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsen absortzioa.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM), 724.000 milioi euroekin zuzkitua, COVID-19aren pandemiari erantzuteko ezarri zen. SEMen funtsen absortzioa ikuskatu ondoren, Europako Kontuen Auzitegiak ondorioztatu du aurrerapenak izan direla, baina baita zenbait atzerapen ere. Batzordeak eta estatu kideek hainbat neurri hartu arren atzerapen horiei aurre egiteko, neurri horiek burutzeko arriskuek beren horretan jarraitzen dute, eta, beraz, SEMen helburuak lortzeko arriskuek ere bai. Era berean, egiaztatu da SEMen Erregelamenduak ez duela funtsak berreskuratzeko aukerarik ematen neurriak osatzen ez badira, eta estatu kideei egindako ordainketek ez dutela nahitaz islatzen lortutako mugarren eta helburuen kopurua eta garrantzia. Egiten diren gomendioen artean, hau aipatu behar da: Batzordeak, beharrezkoa denean, orientabide gehigarriak eman ditzala, neurrien ez-betetzeak ikuskatu dezala eta absortzioarekin zerikusia duten antzeko beste tresna batzuen diseinua indartu dezala etorkizunean.

https://www.eca.europa.eu/ECAPublications/SR-2024-13/SR-2024-13_ES.pdf

Kontuen Auzitegia

- FISKALIZAZIO-TXOSTENA, 100.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIEK GIZARTE-EKINTZAREN KONTZEPTUAN EMANDAKO LAGUNTZENA, 2021EKO EKITALDIA

Auzitegiak ondorioztatzen duenaren arabera, udalek beharrezko diren neurriak hartu behar dituzte dirulaguntzak izapidetzean printzipio hauek errespetatu daitezkeen: gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eraginkortasuna, finkatutako helburuak betetzeko garaian, eta efizientzia, baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko garaian. Horretarako, kudeaketa- eta gainbegiratze-funtzioak esleituta dituzten udal-unitate eta -zerbitzu teknikoek egiten dituzten kontrolak indartuko dira, bai eta esku-hartze organoek egiten dituztenak ere.

https://www.tcu.es/repositorio/5caa1641-a96f-4d74-a7ee-ae523ae7764a/NR_1582.pdf



XEDAPEN ARAUEMAILEAK

Estatuko legeria

- 892/2024 Errege Dekretua, irailaren 10ekoa, Ibilgailu Historikoen Erregelamendua onartzen duena. (2024ko irailaren 18ko BOE)

Helburu nagusia da ibilgailu horien araudi orokorra ezartzea. Izan ere, beren balio kulturala eta garrantzi historikoa babestuko duen araubide juridiko berezia behar dute, antzintasun- edo bezitasun-baldintza jakin batzuk betetzen baitituzte.

Toki-entitateek garrantzi berezia hartzen dute errege-dekretu berriaren lehen xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera. Izan ere, xedapen horretan jasotakoari jarraikiz, eta emisiorik gabeko mugikortasuna sustatzea eragotzi gabe, udalerriek ibilgailu historikoen zirkulazioa erraztu ahal izango dute emisio baxuko eremuetan, udal-ordenantzetan ezartzen diren baldintzetan.

Neurri horren helburua da automobilen arloko kultura- eta industria-ondarearen kontserbazioa eta ezagutza sustatzea, emisio baxuko eremuak arautzen dituen abenduaren 27ko 1052/2022 Errege Dekretuaren 5.3 artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, zeinaren bidez, emisio baxuko eremuetan ibilgailuak sartzeko, zirkulatzeko eta aparkatzeko murrizketetan salbuespenak ezartzeko aukera ematen baita.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/09/18/pdfs/BOE-A-2024-18614.pdf>

- 913/2024 Errege Dekretua, irailaren 17koa, Justizia Administrazioari laguntzeko administrazio-erregistroen sistema arautzen duen otsailaren 6ko 95/2009 Errege Dekretua aldatzen duena. (2024ko irailaren 18ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/09/18/pdfs/BOE-A-2024-18615.pdf>

- 954/2024 Errege Dekretua, irailaren 23koa, Gobernuaren Presidentetza Berregituratzen duen uztailaren 27ko 890/2023 Errege Dekretua aldatzen duena. (2024ko irailaren 24ko BOE)

Espainiako gobernuko Presidentetzaren Kabinetearen egitura egungo antolakuntza-beharretara egokitzeko, eta haren organo guztiak kudeatzeko eta koordinatzeko esparru egokiago bat eskaintzeko, Presidentetzaren egitura aldatzen da, bereziki Kabinete Zuzendaritzaren mendeko egitura.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/09/24/pdfs/BOE-A-2024-19072.pdf>



Euskal Autonomia Erkidegoa

- **251/2024 DEKRETUA**, irailaren 10ekoa, portuetako udal-kontseiluak sortzekoa. (2024ko irailaren 24ko BOPV)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/09/2404396e.pdf>

Arabako Lurralde Historikoa

Azken aldian, ez da araugintza-jarduerarik egon.

Bizkaiko Lurralde Historikoa

- Bizkaiko Foru Aldundiaren **98/2024 FORU DEKRETUA**, irailaren 12koa, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak gestionatzeko Gobernu Eredua sortu eta arautzen baita. (2024ko irailaren 23ko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/09/23/l-953_eus.pdf?hash=e6c8ed925e87bc3b95a4e8f91833484c

- Bizkaiko Foru Aldundiaren **99/2024 FORU DEKRETUA**, irailaren 12koa, zeinaren bidez onartzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren Datuaren Estatutua, informazioaren gestioa eta datuen erabilera arautzekoa. (2024ko irailaren 23ko BAO)

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/09/23/l-954_eus.pdf?hash=bebfeacef87fe36eb4266c429dbc87f3

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

- **2/2024 Foru Dekretu Arauemailea**, irailaren 3koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 26ko **3/2023 Foru Dekretu Arauemailea** aldatzekoa. (2024ko irailaren 11ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/09/11/c2406448.pdf>

- **3/2024 Foru Araua**, irailaren 13koa, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duen azaroaren 23ko **15/1994 Foru Araua** aldatzekoa. (2024ko irailaren 19ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/09/19/c2406655.pdf>



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



- **26/2024 Foru Dekretua**, irailaren 24koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarrizko departamentu egitura berriari buruzkoa. (2024ko urriaren 1eko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/10/01/c2407000.pdf>

- **7/2024 Foru Dekretua**, irailaren 30ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak berriro finkatzekoa. (2024ko urriaren 1eko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/10/01/c2407074.pdf>

Nafarroako Foru Komunitatea

- **78/2024 FORU AGINDUA**, abuztuaren 28koa, lurzatiak berrantolatzearen bidezko esku-hartzea onesten duena Girgillao eta Etxarren Girgillao eremuko nekazaritza azpiegituretan, eta proiektuaren onura publikoa eta premiazko exekuzioa deklaratzeko duena. (2024ko irailaren 13ko NAO)

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2024/187/0>

BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEN TOKIKO EREMUARI BURUZKO LEGERIA

Kanarietako Autonomia Erkidegoa

- **Ebazpena**, 2024ko irailaren 18koa, Kanarietako Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren (Gizarte Ongizate, Berdintasun, Gazteria, Haur eta Familien Sailaren bidez) eta Kanarietako Udallerrien Federazioaren (FECAM) arteko Jarduera Protokolo Orokorra argitaratzeko agintzen duena, Kanarietako Autonomia Erkidegoaren banaketa planifikatzearen ondorioetarako, entitate biek plan hori gauzatzen jarraitzeko konpromisoa dutela adierazi baitute (2024/9/26ko BOC).

<https://www.gobiernodecanarias.org/boc/archivo/2024/191/>



-3/2024 Legea, uztailaren 23koa, Cumbre Vieja sumendiaren erupzioaren ondoren La Palma uhartea ekonomikoki eta sozialki suspertzeko nekazaritza-arloko neurriei buruzkoa. (2024ko urriaren 3ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/03/pdfs/BOE-A-2024-19892.pdf>

- 3/2024 Lege Dekretua, martxoaren 11koa, Cumbre Vieja sumendiaren erupzioaren ondoren La Palma uhartea ekonomikoki eta sozialki suspertzeko nekazaritza-arloko neurriei buruzkoa. (2024ko urriaren 3ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/03/pdfs/BOE-A-2024-19893.pdf>

Kataluniako Autonomia Erkidegoa

- PRE/3356/2024 EBAZPENA, irailaren 18koa, Generalitateak Kataluniako Toki Lankidetzako Funtsera bideratutako diru-sarrerak udalerriei euren partaidetzaren arabera banatzeko, 2024. urtea (23/9/2024ko DOGC)

<https://cido.diba.cat/legislacio?ordenacio=DATAPUBLICACIO&ordre=DESC&showAs=GRID&filtreAmbitAplicacio%5Boptions%5D%5B%5D=1&filtreLegislacioVigent%5Bvigent%5D=1>

Valentziako Autonomia Erkidegoa

- 120/2024 DEKRETUA, irailaren 24koa, Consellarena, Udal Lankidetzako Funtsean ildo espezifiko arautzen duena, Valentziako Erkidegoko udalerrien despopulazioaren aurka borrokatzeko (2024/9/26ko DOGV).

<https://dogv.gva.es/es/resultat-dogv?signatura=2024/9746>

- EBAZPENA, 2024ko uztailaren 31koa, Udal Lankidetzako Funtsean Valentziako Erkidegoko udalerrri turistikoentzako ildo espezifiko esleitzeko 2024ko aurrekontu-ekitaldirako, entitate onuradun bakoitzari dagokiola (20/2024 DOGV).

<https://dogv.gva.es/es/resultat-dogv?signatura=2024/9486>



JURISPRUDENTZIA

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

- JUSTIZIA AUZITEGIAREN EPAIA (Bosgarren Sala), 2024ko ekainaren 6koa.

Justizia Auzitegiaren arabera, zuzentarauak estatu kideei eskatzen die kalte eta galeren kalte-ordaina emateko Europar Batasuneko zuzenbidearen kontratazio publikoaren arloko urraketa batek kaltetu ditueni. Bada, kalte-kategoria ezberdinak bereizten dituen jarraibiderik ez dagoenez, Zuzentarauak pertsona horiek jasandako edozein kalteri egiten dio erreferentzia, kontratazio publikoko prozedura batean parte hartzeko aukera galtzeagatik jasandakoa barne. Alde horretatik, Justizia Auzitegiak hauxe gogorarazten du: kontratu publiko bat ez adjudikatzeak kaltea eragin dezake, eta kaltea lortu gabeko irabazian zertzen da; alabaina, gerta liteke legez kanpo baztertua izan den lizitatzailleak bestelako kalte bat pairatzea, alegia, kontratu horren adjudikazioa lortzeko kontratazio publikoko prozeduran parte hartzeko aukera galtzea.

Horrenbestez, 89/665 Zuzentarauaren 2. artikuluko 1. apartatuko c) letra honela interpretatu behar dela ondorioztatzen du: kontratazio publikoko prozedura batetik legez kanpo utzitako lizitatzaille bati, prozedura horretan parte hartzeko aukera galdu izanaren ondorioz jasandako kalteagatik, kalte-ordaina ematea eragozten duen estatu-araudi edo -praktiken aurka dago.

https://curia.europa.eu/juris/document/document_print.jsf?mode=req&pageIndex=0&docid=286844&part=1&doclang=ES&text=&dir=&occ=first&cid=414885

- JUSTIZIA AUZITEGIAREN EPAIA (Zortzigarren Sala), 2024ko irailaren 26koa.

